



Sasoeta ikastetxeko txikiak Goazen jolastera lana eskaini zuten astelenean.



Landaberriko Eskale musikariek herriko Kale Nagusia alaitu zuten haien dantza eta kantuekin.

Antzerkiz blai

Antzerki eta dantza astearen azken egunak

Astebeteko geldialdiaren ostean, Antzerki eta dantza astean parte hartzen duten taldeak haien lana erakusteko gogotsu ikusi ditugu kultur etxeko oholtzan.

Astelenean, Sasoea-Zumaburu ikastetxeko txikiak eta gaztetxoak izan ziren jaialdiko bigarren aste honi hasiera eman ziotenak.

Astean zehar, Landa-

berri ikastola LH4, LH6 eta LH5 mailako gazteen lanetaz gozatzeaz gain. Añorgako Amassorrain ikastolako gazteen antzerkia ere ikusi ahal izan zen.

Heldu eta gazteak

Gaur helduen txanda da. Hauek *LarrialdiAIAIAIA...* musikalaren eskainiko dute.

Larunbatean bi saio egongo dira antzerki

asteari amaiera emateko.

Lehenegoa, Kukukako gazteek *Bizitzaren zirkoa* antzeztuko dute eta Añorgako helduen taldeak, berri, *Cromt ech* obra.

Bigarren saioan, Solaskideko taldeak *Andrearen urtea* lana antzeztuko du eta Jalgune elkarteak gazteek *20 urte hamaika bertute* eskainiko dute. •



Amassorrain ikastolako gazteek lehenegoa haien lana eskaini zuten kultur etxeko aretoan.



Igandean egingo da XXIII. Dantzari Txiki eguna Erketz eta Kukukaren eskutik /3

KIROLA /6

Izkiña tabernak irabazi zuen Buruntzaldeko I areto-futbol txapelketa Andoainen



Lasarte-Oriako Herritarren Plataforma eta PSE-EEren arteko tirabira /4

Leire

JATEN DUGUNA GARA!



Arrandegia

KALITATEA PREZIO JUSTUAN

Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946
Iñigo de Ioyola 17 • Irun (Larraundi) • Tel.:943 624146

Gure 1. urteurrena, gure bezeroei OPARIAK banatzen, ospatu nahi dugu

Eskerrik asko guregan jarritako konfidantzagatik

Zorionak gure bezeroei !



ORDUTEGIA
Astearetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astearte eta ostiraletan arratsaldeaz ere 17:00etatik 19:30etara

Zorion-agurrak



Alaine

Zorionak printsesa eta zortzi muxu handi zure familiaren partetik



Begoña eta Garazi

Zorionak bikote, aita-txo eta Eleneren partetik. Ondo pasa zuen egunean!



Olatz

Zoriona printzesa! 8 muxu gurasoen eta Haritzen partetik.



Lucia

Zorionak printzesa!!! 3 muxu potolo potolo gurasoen eta gainerako senideen partetik.



Nahia

Zorionak polita! Zortzi muxu potolo aita, ama eta Malen-en partetik.




Lore

Zorionak Lolo! Ondo pasa! Ah! uste dut afari bat oraindik pendiente dugula...eh?! Katxipiruleta!



Antonio eta Tina

Zorionak aiton-amonak zuen urtebetetzeagatik. Seme-alaben eta iloben partetik txokolatezko muxuak!



Juan

Zorionak zure 7. urtebetetzearen familiaren eta bizilagunen partetik.



Leire

Zorionak polita zure 9. urtebetetzean, aiton-amonak, Iñigo eta amaren partetik. Muxuak!



Naiara

Zorionak eta txokomarrubizko hiru muxu handi! Aitaxo eta amaxoren partetik.



Markel

Zorionak 5 urteko gure printzepe!!! Maite zaitugu!!! Mila muxu aita, ama, arreba eta familia.



Maitane

Zorionak zure hirugarren. urtebetetzean, mila muxu familiaren partetik!



Elur

Nahiz eta berandu izan, Zorionak printzesa zure bosgarren urtebetetzean!



Aitor

Zorionak eta... zenbat muxu? Uf, pila bat! Ea bihar denbora ona egiten duzun! Animo!

Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidaiaren iraupena 15 minutukoa da

Lanegunetan	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.
-------------	--	---

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Hernaniko alde zaharrear etxe berria salgai. 270.000 euro. Harremanetarako zenbakiak, 943 332 320 edo 685 369 952.

• Gela bakarreko atikoa alokairuan, Okendo plazan 600 euro hileko. Tel.: 657 815 368.

• Mobil home bat saltzen da, Olin. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu: 626 057 485.

• Pisia alokairuan Lasarte-Orian. 75m2 ditu; sukaldea, 3 logela, sala, 2 komun eta terraza. Hegoaldeko orientazioarekin. Kalefakzio instalazio berria eta lehiu aldatuekin. Interesatuak deitu 605 770 436 zenbakira, Blanca.

Lan-eskaientzak

• Esperientziadun eta lan-taldeko ardura hartzeko prest dagoen kazetari bat behar da herri-aldizkari baterako. Taldeko ardura hartzeko prest dagoena. Interesatuak bidali kurrikuluma ttakun@ttakun.com helbidera edo deitu 943 371448 telefonora.

• Umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko emakumea behar da, egunean 4 ordu izango lirarete. Tel.: 606 400 596.

Lan-eskariak

• Magisteritza diplomatu eskaintzen da ingelerako klaseak emateko, DBH4 mailara arte. 660 465 247, Miren.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Jaiotzak

• Naroa Iglesias Nieto, ekainaren 2an.
• Udane Lerena Sevillano, ekainaren 2an.

Heriotzak

• Juana Artano Zuriarrain, ekainaren 9an 94 urte zituela.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
Kiroldegia ... 943 376182
Kulturetxea ... 943 376181
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
KIUB ... 943 361605
Udal euskaltegia ... 943 361621
Muntteri AEK
euskaltegia ... 943 372863

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 10
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151
Larunbata, 11
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567
Igandea, 12
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astehena, 13

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
Asteartea, 14
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
Asteazkena, 15
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Osteguna, 16
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Desfile polita eta koloretsua bizi zen aurreko urtean. Goizean ateri mantendu bazen, arratsaldean Mlchelinin ospatu zen ekitaldia.

Dantzari txikiz beteko da Lasarte-Oria igandean

Urtero legez, igandean, ekainaren 12an, herriko kaleak musikaz eta dantzaz beteko dira, Kukuka eta Erketz Dantza Taldeek antolatutako XXIII. Dantzari Txiki egunean.

Herriko dantzari txikiak, bost urtetik hasi eta 3. DBHra bitarteko haurrek hartuko dute parte igandeko jaialdian. Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideez gain, gipuzkoar talde bat eta bi nafar izango dira Lasarte-Oriako kaleetan zehar dantzan. Oreta, Falces eta Zangotzako taldeek parte hartuko dute igandeko jaian.

Kalejira eta saioa

Erketz eta Kukukako antolatzailak azaldu digutenez, talde guztiek goizeko 10:30ean dute hitzordua Andatza plazan. Ondoren, 11:00ak aldera herriko kaleetan zehar egingo duten kaleji-

rari ekingo diote, Dantzari Txikien alardeari, alegia. Ongietorria emateko Agurra dantzatuko dute talde guztiek.

Andatzatik talde guztiak elkarrekin aterako dira baina EuskoTreneko errotondan bakoitzak bere bidea hartuko du eta lau ibilbide ezberdin egingo dituzte: batzuek Sasoa eta auzo aldera joko dute, beste batzuek Atsobakar aldera; hirugarren ibilbideak Zumaburu aldera egingo du eta laugarrenak, erdialdera.

Indarberritzera

Eguerdiko 13:00ak aldera arte dantzatuko dute taldeek banaka herriko kaleetan eta ordu horretan emango zaio amaiera goizeko kalejira eta alardeari Andatza plazan, eta bertatik abiatuko dira kanpoko dantzari txikiak herriko dantzarien etxeetara bazkaltzera. Behin bapo bazkaldu,

indarberritu eta energiaz bete ondoren arratsaldeko 16:45ean berriro Andatza Plazan elkartuko dira guztiak arratsaldeko saioari ekiteko.

Talde bakoitzeko bikote batek Agurra elkarrekin dantzatu eta gero, talde bakoitzak bere saioa eskainiko du eta ekitaldiari amaiera emateko XXIII. Dantzari Txiki Egunean parte hartu duten dantzari guztiek fandango, arin-arin eta kalejira dantzatuko dituzte elkarrekin. Antolatzaileren asmoa, arratsaldeko 18:15ak aldera amaitzea da.

Eguraldiaren arabera

Aipatu bezala Dantzari Txikien Egunean antolatu diren ekitaldi gehienak Andatza plazan burutuko dira baina antolatzailak adierazi dutenez, eguraldi txarra egingo balu Michelingo Kirol guneko frontoira pasako dira ekitaldi guztiak. •

SAN PEDROAK 2011

Kamisetak tindatzeko saioak

LH3 mailatik gorako gazteek, hurrengo astean, ekainaren 15ean eta 16an, San Pedro eguneko koadrila bazkarirako kamisetak atontzeko saioak izango dituzte.

Landaberriko ikastolako Garaiakoetxea eraikinean asteazkenean eta Sasoa-Zumaburu ikastetxeko Sasoaetako eraikinean, ostegunean izango dira saioak. Arratsaldean, 15:30etik aurrera gaztetxoek kamisetak tindatu ahaliko dituzte eta haien gustura apaindu. •

ESPERANZA LATINA

Euskara ikasten kantuen bidez

Esperanza Latina elkarteak Danok Kideren egoitzan antolatzen duen euskara ikastaroaren barruan, euskal kantuek ikasi eta abestuko dituzte eta herritarrei eskaera bat egin nahi diete, euskaldunak beraiekin batera kantuan aritzekoa.

Taldea, igandero bezala, euskara ikasteko bilduko da igande honetan. Beraz, interesa dutenek, igandean, 11:00etan, Danok Kide elkarteko egoitzara hurbiltzea besterik ez dute. •

EUSKARA

Euskara ikasi dutenentzat diru laguntzak

Udaleko euskarako zerbitzuak jakinarazten du 2010/2011 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoriarrek beka jasotzeko aukera dutela.

Horretarako, interesatuek subentzio-eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan.

Diru laguntza eskaera hau ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak.

Eskaerak betiere agiri guztiekin aurkeztu beharko dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke, 943 376 184 telefono zenbakian edo Udalaren web-orrian kontsultatu. •

KIROLDEGIA

Igerilekua itxia eta ur berorik ez

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakinarazten du, geldialdi tekniko delako eta, astelehenean, ekainaren 13an, 10:30etik 14:00etara kiroldegian ez dela ur berorik egongo.

Era berean, denbora tarte horretan udal igerilekua publikoarentzat itxita egongo da. •



Arg.: Usurbilgo Lanbide Eskola

Biyak Bat briskako Gipuzkoako Txapeldun

Maiatzaren 31n, Zahar eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, Gipuzkoako mahai joko eta mugimendu jokoan txapelketako finalak jokatu ziren Altzan.

Lasarte-Oriako Biyak Bat elkarteko Julio Sanz eta Laurentino Martinek briskako finalean parte hartu eta txapeldun izan ziren.

Hala ere, ez ziren txapelketa honetan parte hartu zuten herritar bakarrak izan. Juan Mari Aristondo eta Jose Luis Mendiluce eskoba txapelketako finalerdietara iritsi ziren eta Emilio Barcena eta Victor Rodriguez potekora. •



Laurentino Martín, Exiquio Perez Biyak Bateko delegatua eta Julio Sanz. Arg.: Biyak Bat.

Lurralde ekintzaile baten alde

Usurbilgo Lanbide eskolan, ekainaren 3an, "Ekimena eta ekintzailetza gaitasunak garapenerako programa" aurkeztu zen.

Programa hau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gipuzkoan gizarte ekintzaile bat sustatzeko programa-ren barruan garatzen da eta Bikume S.L.-ren laguntza du.

Ekitaldian erakunde desberdinetako kideek partu

hartu zuten: Gipuzkoako Foru Aldundia, Hezkuntza Sailaren Gipuzkoako Arduradunak, Lanbide, Garapenerako Agentziak, Lanbide, Euskal Herriko Unibertsitatea, Heziketako Eskoletako arduradunak eta irakasleak.

Programa aurkeztu ondoren, parte-hartzaileek taldeetan banatuta ekintzailetzari buruz ideiak eman eta komunean jarri zituzten. •

Ikerketa itxi zuten PSE-EE eta PPK

- Beste alderdietako ordezkariak batzar aretoa utzi egin zuten jokoera partzial hori salatzeke
- Bost minutuan onartu zuten kooperazio laguntzetan deliturik ez zela egon dion txostena

Udalak emandako diru laguntzei buruzko ikerketa batzorde berezian onorioen txostena onartu zuen astelehen goizean Lasarte-Oriako udalbatzarrak eta beraz, batetik Ana Urchueguiak egindako kooperazioko diru laguntzen kudeaketan deliturik ez dagoela onartu zen eta bestetik diru laguntzen ikerketak ez duela aurrera jarraituko.

Xabier Egea idazkariak egindako txosten horrek PSE-EE eta PP alderdien bozkak bakarrik izan zituen, oposizioiko gainontzeko taldeek batzar aretoa utzi baitzuten gai hori jorratzen hasi baino lehen.

Oposizioaren ondorioak

Udalbatzarra amaitu ondoren, aretoa utzi duten oposizioiko alderdiko, Ezker abertzalea, EAJ, LOHP, H1! eta EB, zinegotziek prentsaurrekoa eskaini zuten.

Honetan, alderdi bakoi-tzak diru laguntzen batzordeari eta txostenari buruzko ondorioak eskaini zituen.

Ezker abertzaleak ondorioen txostenean guztien iritzirik ez dagoela salatu zuen eta beraz, idazkariak aurkeztutako idatzia "partziala eta eskasa" zela adierazi zuten.



Oposizioiko alderdiek, PPK izan ezik, udalbatzarra amaitzean gertatutakoari buruzko adierazpenak egin zituzten.

Honetaz gain, jakinarazi zuten PSE-EEK ondorioetan onartu dutela, esate baterako, kudeaketa pertsonalizatua eta kooperazioko teknikoak berandu kontratatu izana.

Galderak PSE-EEri

Eta ezker abertzaleko zinegotziek bi galdera luzatu zieten PSE-EEko kidei: "alderdi sozialistari nahikoa al zaio, ez al du ardurarik eskatuko? Eta non daude ardura ekonomikoak?" Izan ere, adierazi zuten, Udalak eman dituen

100 milioi euro ez daude justifikatuak eta "herritarren poltsikoetatik ateratakoak" dira.

EBko Rikardo Ortégak "Ana Urchueguiak hasieratik bere erantzukizuna onartu izan balu, PSE-EE garbi gertuko litzateke" adierazi zuen.

Gainera, teknikoek urtetan diru laguntzen arloan ikusitako irregulartasunak alde batera utzi eta Udalak 2009a arte ezer ez egitea salatu zuen.

"PP eta PSE-EEren ustez ongi itxi dute batzordea, baina ez da horrela" aipatu

zuen EBko ordezkariak.

LOHPko zinegotziak, PSE-EEK hasieratik jarritako trabak eta PP eta PSE-EEK egindako paktuak ikerketa batzordea lurperatu izana salatu zuen.

Hamaika bateko zinegotziak, berriz, batzordeak ezer argitu ez duela eta auditoria eta kooperazioko teknikoaren laguntza eskasa izan direla azpimarratu zuen. "Ez dakigu proiektuak egin diren edo ez," aipatu zuen.

EAJko zinegotziak batzordea hasieratik itxurakeria zela

eta orain PSE-EEK gaia amaitutzat eman nahi izana salatu zuten.

Bestalde, alderdi jeltzaleko zinegotziak ondorioen txostenean idazkariak bere iritzia ematean, epaile lana egin izana egotzi zion. "Bere lana alderdien ondorioak hartu eta idaztea zen. Berak bereak egin ditu eta sententzia eman du" adierazi zuen.

Era berean, maiatzaren 22ko hauteskundeetan eman den indar aldetaren ondorioz, hurrengo legealdian zerbitzu juridiko baten laguntza kudeaketaren ardurak argitzen saiatuko direla jakinarazi zuten EAJko eta LOHPko zinegotziak.

Adarra kaleko BOEK

Honetaz gain, Udalbatzarrean, diru laguntzen banaketari buruzko txostenaren gaiaren aurretik, Adarra kalean doazen etxebizitza babestuen prozedura behin-behinean onartu zen alderdi guztien bozkei esker.

Era berean, herritar batek prozedura honi jarritako alegazioa atzera bota zuten, erregistroan sartzeko bost urtetan herrian erroldatua egon behar dela berretsiz. •

Alkatetza galduko duela uste du Zaballosek

Oposizioko taldeei, PPri izan ezik, erantzun nahi izan zien asteartean, Jesus Maria Zaballosek astelehenan elkarrekin emandako prentsaurrekoan esandakoarengatik. "Huts administrati-boak egon izana onartzen dugu baina aldi berean esan nahi dugu hemendik aurrera neurriak hartuko ditugula gestio argi eta gardena eskuratzeko" aipatu zuen Zaballosek.

Era berean, herriko jarduneko alkateak oposizioak sei urte hauetan egin duen PSE-EEren aurkako kanpaina eta informazioaren desitxuraketa salatu zuen. Gainera, oposizioko taldeek batzordean "haien egia" bakarrik bilatu dutela azpimarratu zuen.

Babes bakarra

Bestetik, larunbatean emango den alkate berriaren inbestidurari buruz ere aritu zen PSE-EEren alkategaia.

"Berrero ere herritarrak guri eman digute babesik handie-

na, baina Bildu, EAJ eta LOHP elkartzeko hitzarmenetan daude nik dudan gehiengo hori kentzeko eta larunbatean alkatetza eskuratzeko" azaldu zuen.

PSE-EEK herriko alderdi guztiekin biltzeko eta eztabaidatzeko konpromisoa azaldu zuela adierazi zuen Zaballosek. Gauzak honela, PPrekin bildu ziren eta Zaballosten aldeko apustua egingo zuela argi utzi zien.

Bestetik, EAJ-rekin biltzean hauek argi utzi omen zieten "aldaketaren aldeko apustua egingo dutela eta horregatik Bildurekin programa eztabaidatu behar zutela" azaldu zuen Zaballosek.

Plataformari hitz gogorrak

Hitz gogorrenak Lasarte-Oriako Herritarren Plataformarentzat izan zituen jarduneko alkateak "eurak izango dira lasarteoriatarrek bozkatu duten hori ez errespetatzea- ren errudun bakarrak".



Jesus Zaballo oposizioko alderdiei erantzuteko eskaini zuen prentsaurrekoan.

"Argi dugu LOHP dituen boto-emaileak PSE-EEren boto-emaile izandakoak direla" azaldu zuen Zaballosek.

LOHPkoekin izandako bileran, Plataformak argi utzi nahi izan zien ez zutela presidentziarik edo maletarik nahi, "zintzotasuna eta erantzukizu-

nak eskatzen zizkiguten eta Lurdes Acevedo eta Iñaki Mugicaren dimisioa". Azken hau "ezin dugu onartu, nire proiektuaren barruan dauden bi kide dira eta hauen ekintzak inongo funtsik gabe kolokan jarri nahi izan dituzte oposizioiko taldeek" gaineratu zuen.

Bilera honen ostean bigarren bat ospatzeko gonbitea egin arren "oraindik euren deia zain gaude, hau dela eta pentsatu dezakegun gauza bakarra da EAJ, Bildu eta LOHPren arteko paktua berehalakoa dela".

Zaballo alkategai

Aste honetan ematen diren gora-beheraren aurrean, PSE-EEren alkategaiak argi utzi zuen bere burua aurkeztuko duela larunbatean, ekainaren 11n egingo den inbestidura-ekitaldian. Honen harira "LOHP guri eskatu digun zintzotasun eta erantzukizun bera eskatu nahi diegu".

Larunbatean Bilduren hautagaia den Pablo Barriok Lasarte-Oriako alkatetza lortzen badu "guk PSE-EEtik argi utzi nahi dugu oposizio arduratsua egingo dugula. Oposizioa izango da gure lana, ez gobernuan laguntzea" aipatuz bukatutzat eman zuen prentsaurrekoa. •

Plataforma eta PSE-EEren arteko tirabira

Zaballos-i erantzun dio LOHPk alkatetzari buruzko negoziazio eta "gezurrak" argitzeko

Hauteskunde garaian ahalik eta boto gehien eskuratzearen alderdien artean izaten diren ika-mika eta tirabirak ez dira Lasarte-Orian hauteskunde ondorenean baretu. Behin alderdi politiko bakoitzak izango dituen zinegotzi kopurua jakinda, agintzeko gehiengo eroso bilatzeko negoziaketa eta ahaleginak, bulegoetatik iritzi publikora iritsi dira aste honetan. Asteartean Jesus Maria Zaballos PSE-EEko alkategaia LOHPri buruz eta hauekin izan dituen negoziaketez aritu zen, eta asteazkenean hauek erantzun egin zituen.

Lasarte-Oriako behin behineko alkate eta PSE-EEko alkategai, Jesus Maria Zaballos, ekainaren 11n egingo den alkate izendapenari begira, LOHPrekin izan dituen elkarrizketei buruz mintzatu zen, asteartean, prentsaren aurrean eta hurrengo egunean erantzun egin zion plataforma honek komunikabideetara bidalitako prentsa ohar baten bidez, Zaballosek esandakoenez zehaztasun falta kritikatu. Plataformak asmakizun eta gezurtzat jo zituen Zaballosen adierazpenak.

Jesus Maria Zaballos-ek esandakoak argitzeko LOHPk bidalitako oharren arabera, maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren, eta PSE-EEK jaso zituen emaitzak jakinak izanik, bere bulegora deitu zituen zinegotzi izango diren LOHPko bi hautagaiak eta bilera horretan, PSE-EEK bere programako 100 proposamenak irakurri zizkien. Plataformako

kideek aipatu dutenez, "ezagutzen genituen arren oso adi entzun genituen proposamenak" eta ondoren bi baldintza jarri omen zizkieten Zaballos alkategaiari beraien botoak eskuratu ahal izateko: "baldintzak zintzotasuna eta erantzukizuna baino ez ziren izan, ez zioten beste ezer ere eskatu" plataformak azaldu duenez: are gehiago "besaulki eta prebendak, soldadak eta bulegoak arbuia egin genituen".

Negoziaketetan alboratu

LOHPk adierazi du behin eta beriz soilik zintzotasuna eta erantzukizuna eskatu zitzaizela eta Zaballosek ondorengo erantzuna eman zela: "Zuentzako ezer nahi ez duzuela badiozue, eta zintzotasuna eta erantzukizuna eskatzen badidazue, nik, baldintza horiekin, negoziaketetan albo batean utzi behar zaituztet".

Honen aurrean LOHPk argi utzi nahi izan du "Lasarte-Oriako alkate izan nahi duena ez



PSE-EErekin izandako bileran zintzotasuna eta erantzukizuna eskatu zizkiola soilik adierazi du LOHPk.

Arg.: LOHP

bada zintzotasunez eta erantzukizunez jardun behar duela esateko gai, uste dugu ez duela kargua merezi, eta beraz, udaleko beste ordezkariak, derrigorrez, beste bide batzuk aztertzea behartzen ditu".

Era berean, aipamen honi jarraiki eta asteartean Jesus Maria Zaballosek publikoki esan zituen "gezur" eta "LOHPko kideen aurka deskalifikazio guztien ondorioz, bi partidu hauen artean egon zitekeen nolabaiteko hurbiltasuna zaildu egin da. Horregatik bere jarrera aldatzeko eta, gizalgeez jokatzeko eta egian oinarritzeko eskatzen diogu".

LOHPk argitu du, prentsa

oharren aipatutakoak egiaztatzeko frogak dituela, norbaitek nahi izanez gero, eta eskuragarri daudela PSE-EEK burutu nahi izan duen negoziaketaren xehetasun eta ikuspegi gehiago jakin nahi dituztenentzat: Negoziaketa hauetan "Lakuako aholkulariak hartu dute parte eta hauek ez zuten dudarik izan Zaballos solasaldi hauetatik kanpo uzteko, ez omen zuelako negoziaketarako nahikoa esperientziarik" azaldu dute LOHPkoek. Honen aurrean zera galdetu dio bere buruari plataformak: "inbestidurako pakto bat negoziatzeko esperientzia nahikoa ez

baldin badu, ba al du alkate izateko gaitasunik?"

"Argitasuna eta takigrafoak aldarrikatu ditu uneoro" plataformak eta zera gaineratu: "horregatik ez du zalantzarik ezta beldurrik ere negoziaketan nondik norakoak argitaratzeko. Era berean, aurrerago Bildu eta EAJrekin izan ditugun elkarrizketak ere publiko egingo ditugu".

Alderdi Popularrakin ez dela bildu argitu du Plataformak "hitz egiteko gonbidapena luzatu eta ez zutelako erantzun ere egin". Horretarako, gizatasunik edo edukaziorik ere ez zuela izan leporatu dio Plataformak PPri". •

Ez manipulatzeko eskatu dio Zaballosek Plataformari

Jesus Zaballos PSE-EEko alkategaia ukatu egin du Lakuako gobernua Lasarte-Oriako alkatetzari negoziatzen saiatu denik, LOHPk bidali duen prentsa oharrean esaten dena gezurtatuz. Jesus Zaballos alkategaia ohar horri erantzunez jakinarazi du, "alderdi honek aditzera eman duena ez dela egia, PSE-EEko zuzendaritzak ez duela inoiz LOHPrekin hitz egin".

Dena den, larunbatean, Udaltzat berriaren eraketa egunean LOHPk hartuko duen jarrerari buruzko solasaldiak egon direla aitortzen du alderdi sozialistako alkategaia: "PSE-EEko kide den Eusko Jaurlaritzako langile eta honen bilazilun den LOHPko kide baten arteko solasaldiak egon dira. Eta ondoren, bizi-lagun horrek Ana Prietoren

zenbakia eman zion honekin hitz egiten zezan".

Garrantzirik ez eman

Hala baina, gertatutakoa ez manipulatzeko eta duena baino garrantzia handiagoz ez emateko eskatzen dio Zaballosek LOHPri. "Izan ere, solasaldi horien berri bazuen, baita nik LOHPko kide batzuekin hitz egin dudala ere. Baina horri ez dio garrantzirik ematen, agian titular polit bat ez delako" adierazi du alkategaia.

Grabazioa publiko egin

Honetaz gain, bi alderdiek izandako bilera osoaren grabaketa argitaratzeko eskaera egiten dio Zaballosek LOHPri. "Prieto andreak jakinarazi didanez, nire baimenik gabe grabatua izan zen. Gra-

bazio horretan entzun ahal izango da LOHPk alderdi sozialistako Lurdes Acevedo eta Iñaki Mugika hautagaien dimisioa eskatzen duela" ere aipatzen du larunbatean PSE-EEK alkatetzarako aurkeztuko duen hautagaiak.

Udal eratzeara bihar

Gauzak honela, azken egunetako zurrumurru, alderdi politiko desberdinen adierazpen, erantzun eta ika-mikek ez dute garbi uzten, Lasarte-Oriako alkatetza zein alderdiren esku geratuko den.

Maiatzaren 22ko hauteskundeen emaitzek gure herriko mapa politikoa aldatu zuten. PSE-EEK 7 zinegotzi lortu zituen, Bilduk 5 ordezkari, EAJ eta LOHPak bina zinegotzi bakoitzak eta PPK bat. Beraz, gutzia herriko



Duela lau urte, 2007-2011 legealdiko udal batzarra eratu zuten zinegotziak.

Udal berria eratzeko Batzarrean argituko da bihar.

Bilera goizeko 9:00etan hasiko da Udaltzat aretoan. Bertan, maiatzaren 22ko hauteskundean aukeratu ziren zinegotzi berriei karguaren

zina egingo dute lehenengo eta Lasarte-Oriako alkatea aukeratu dute ondoren.

Udaltzatzean larunbatean gertatzen den guztiaren berri, www.txintxarri.info orrialdean izango duzue. •

Kiroletako agenda

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 11

MOSO OROIMENEZKOA TXAPELKETA
Udal Kirol guneko areto-futbol pistan
09:10ean, ISU Leioak - Obelixa
10:00etan, Buenetxea - Ayete
10:50ean, Viñadel Mar - Lekuona Mena
11:40ean, Naiban - Izkiña
12:30ean, Ilargi - Semblante Andaluz
13:20ean, Epel- Illun

PILOTA

Larunbata 11

SAN PEDROTAKO TXAPELKETA
Loidi-Barreneko frontoian, 10:30ean
Benjaminak:
Ibai Izagirre eta Mikel Ibizate - Aitor Igarritz eta Gorka Marcos
Alebin B, A taldea:
Joseba Vazquez eta Larrun Pikabea - Alex Etxeberria eta Jon Ibizate
Alebin B, B taldea:
Danel Bobillo eta Mikel Zabala - Gorka Aristorena eta Eneko Martin
Alebin A:
Julen Urruzola eta Axier Nogeira - Axier Urruzola eta Eneko Ortiz
Beteranoak:
Xabi Etxezarreta eta Migeltxo Aristei - Goio Solano eta Mikel Arroio

Igandea 12

SAN PEDROTAKO TXAPELKETA
Loidi-Barreneko frontoian, 10:30ean
Kadete A:
Axier Arteaga eta Eneko Sarasola - Xabi Prieto eta Jon Presa
Kadete B:
Ander Rekondo eta Jagoba Mendizabal - Aritz Solano eta Iker Artetxe
Beteranoak:
Peio Sarasola eta Jose Luis Urruzola - Xabi Etxezarreta eta Migeltxo Aristei
Juan M^o Arteaga eta Juanxto Prieto - Goio Solano eta Mikel Arroio

PALA

XXX. SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barreneko frontoian
Astelehena 13
18:30ean, Aitor eta Xabier Sarasola - Goiko eta Azkona
19:30ean, Santi Martin eta Bernat Odriozola - Jon Pagola eta Jesus Ferreira

Astearte 14

18:30ean, Agustin Zubizarreta eta Iñaki Carretero - Xabi Etxezarreta eta Mikel Bardaji
19:30ean, Jon eta Mikel Begiristain - Pello Sarasola eta Jose Luis Urruzola

Asteazkena 15

18:30ean, Eneko Urdanpilleta eta Unai Lizaso - Iñaki Lizaso eta Joserra
19:30ean, Iñigo Arluziaga eta Jon Pello Artetxe - Carlos Garcia eta Patxi Castro

Osteguna 16

18:30ean, Xenki eta Mundu - Jon Lizaso eta Txema Urruzola
19:30ean, Imanol eta Ander Bardaji - Xabier Otaegi eta Egoitz Uzkudun

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Ostirala 10

Kontsolazio fasea:
Oinatz Iparragirre - Michel Zugasti/Xabier Amiano
Xabier Linazisoro - Irati Agirre/Veronica Gonzalez/Iñaki Garcia/Emilio Hernandez

Astelehena 13

Txapeldunen fasea:
Iker Cañedo - Jon Linazisoro
Alberto Udabe - Quinin Calvo

Astearte 14

Txapeldunen fasea:
Jon Linazisoro - Oswal Cañedo
Agustin Erkizia - Alberto Udabe

Asteazkena 15

Txapeldunen fasea:
Quinin Calvo - Iker Cañedo



TXIRRINDULARITZA

Larunbata 11

16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Euskadiko Errepideko txapelketa dute, Bergaran.
16:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Zumaiaiko Sarian parte hartuko dute.

Igandea 12

08:00etan, Ostadar K.F.-ko zikloturista taldeak Mandubiako gainera, Ezkio-Itsasora egingo dute irteera.
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubentilek San Juan proba dute, Seguran.

TRIATLOIA

Larunbata 11

15:00etan, herritar talde batek Gipuzkoako distantzia olinpiko bikoitzeko txapelketa den Zarauzko Triatloian parte hartuko du.

Igandea 12

10:00etan, herritar talde batek Gipuzkoako VI. Sprint Triatloian parte hartuko du, Donostian.

IGERIKETA

Igandea 12

10:30ean, Buruntzaldea IKTKo kideek V. Harri Garmendia Sarian parte hartuko dute, Paco Yoldi kiroldegian, Donostian.

ATLETISMOA

Larunbata 11

18:00etatik aurrea, LOKEko atletik parte hartze mugagabeko probak dituzte, Anoetako miniestadioan, Donostian.



Izkiña taldeko jokalariek Buruntzaldeko lehen areto futboleko lehiaketan txapeldun izan dira.

Arg.: Txema Valles

Izkiña da Buruntzaldeko areto-futboleko txapelduna

Moso oroimenezkoaren lehen partidak jokatu ziren larunbatean

Lehenengo asteburuan, Buruntzaldeko lehen areto-futboleko txapelketa jokatu zen Andoaingo Allurralde kiroldegian eta Lasarte-Oriako ordezkari Izkiña Taberna izan zen garaile.

Ostiralean, final erdiak jokatu ziren. Lehenengoan, talde lasarteoritarrek Andoaingo Ongi Etorri taberna gainditu zuen.

Partida zaila izan zen herriko taldearentzat. Ongi Etorri bi gol egin zizkion Izkiñari. Hala ere, herritarrek ez zuten amore eman eta partidari buelta eman zioten. Azkenean 5 eta 3 gailendu ziren.

Beste partidari, Urnietako

Elur Elektrizitatea taldeak eta Usurbilgo Makaxek partida berdindua jokatu zuten. Banako berdinketarekin amaitu eta penaltietan Urnietako taldeak 2-3 irabazi zuen.

Nagusitasunez

Gauzak honela, larunbateko finalean, Izkiña eta Urnietako Elur Elektrizitatearen arteko norgehiagokaz gozatzeko aukera izan zuten Allurraldera hurbildu zirenek.

Hasieratik, partidari nagusi izan zen Oscar Garciak zuzentzen duen taldea.

Lehenengo zatian, lasaitasuna ematen zion lau goletako errenta lortu zuen herriko taldeak.

Hala ere, bigarren zatian, erritmoa mantendu zuen Izkiñak eta arerioa kontrolpean izanik, beste hiru gol egin zituen. Honela, 7 eta 3 irabazi zion Urnietako taldeari.

Era honetara, Izkiña Taberna Buruntzaldeko lehen Areto-Futboleko txapelketaren saria eskuratu zuen.

Moso Oroimenezkoa

Bestalde, larunbatean Moso Oroimenezkoaren lehenengo partidak jokatu ziren Udal Kirol gunean.

Kanporaketa sistemaren bitartez jokatuko da eta antolatzailek jakinarazi dutenez, San Pedroetan, uztailearen 2an, izango da finala. •

San Pedroetako binakako esku pilota txapelketa jokoan da

Maiatzaren 28an eman ziztzaion hasiera San Pedroetako binakako esku pilotako txapelketei.

Izan ere aurten, gaztetxo-en XXV. txapelketa eta helduen lehenengo txapelketa antolatuko dira Intza elkarteak.

Harrera ona

Eta txapelketari harrera ona izan duela esan daiteke, bai izena emate, baita ikusle kopuruarengatik ere.

Gaztetxo-en txapelketari sei maila derberdin dira: benjaminak multzo batean, alebinak hiru multzoetan eta kadeteen bitan, 20 bikote ari dira lehiatzen; helduenean, berriz, bost bikote dira.

Horiek guztiak, maiatzaz geroztik, mailako desberdinetako partidak jokatu dituzte



San Pedroetako lehiaketako gaztetxoek, zein helduek gogotsu ematen diote pilotari.

larunbata eta igande goizeetan Loidi Barreneko pilotalekuan eta herritar ugari izan dira hauek ikustera hurbildu direnak.

Oraindik ez dago garbi nortzuk jokatuko dituzten

ekainaren 24 eta 25ean jokatuko diren finalerdiak.

Geratzen diren bi jardunaldiako partidak, asteburu honetako eta ekainaren 18 eta 19koak, erabakiorrak izango dira beraz. •

Egunero

Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN, Vanessa Gimeno diseinatutako kamisetak ikusgai eta salgai. Jalgin, egun osoan.

Erakusketa

BRANCUSSIKO IKASLEEN VI. Margo erakusketa. Kolorea eta marrazkia izango dira nagusi, teknika ugariarekin batera. Kulturetxean, 18:00- 21:00.

Larunbata, 11

Kontzertua

MULTA ETA INSOMNIO rock taldeen kontzertuak Sustrai tabernan arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Igande, 12

Dantza

DANTZARI TXIKI EGUNA. Antolatzailerak, Kukukak eta Erketzek, Orereta, Falces eta Zangotza herriak gonbidatu dituzte. 11:00etan herriko kaleetan zehar alardea; 14:45ean Andatza plazan bertan emanaldia. Andatza plaza, 10:30etik aurrera, EUSKARAZ.



80. hamarkadako musika Abenden

Urteak igaroz doaz baina zenbait kantu gurekin betirako geratzen dira; horren froga ditugu ELENA ETA BERBENA.

80. hamarkadako musika berpiztearen ideiarekin bat eginez, proiektu berri bat abiatu zen Irunen musika mota ezberdinetan diharduten dozena erdi bat pertsonen artean. Geroztik zuzeneko emanaldiak eskeintzen dituzte, vintage erako soinu ahaztezinak freskotasan eta indarrarekin uztartuz, inprobisaziori tartea utziz beti ere.

GAUR, OSTIRALA 10
GAUEKO 12 ETATIK AUERRERA
ABEND KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala, 17

Kontzertua

JOKIN GOENAGA akordeoi jolearen emanaldia Xpression eta Udalak duten hitzarmenaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Kontzertua

YEMAMAHREN emanaldia. Musika Brasildarra, Bossa, Pop... gozatzeko aukera. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

Kontzertua

IBON CASASen emanaldia. Abend kafe-antzokian, gaueko 12etatik aurrera.

Osteguna, 30

Kontzertua

AUPA QUARTET, soka laukotearen emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.

IX. Antzerki eta Dantza Astea

EUSKARAZ, KULTURETXEAN

Ostirala, 10

22:30ean

LarrialdiAIAIAIAk antzez-lana eskainiko du helduen talde baten emanaldia.

Larunbata, 11

20:00etan

Bizitzaren zirkoa antzez-lana eskainiko du gazteen taldeak eta Cromtech lana Añorgako Amassorain taldeak.

22:30ean

Andrearen urtea antzez-lana eskainiko du helduen taldeak eta 20 urte *hamaika bertute* emanaldia eskainiko dute Jalguene taldeko kideek.

KUKUKA ANTZERKI ETA
DANTZA ESKOLAREN ESKUTIK

Liburutegiko ordutegia

Asteleheneetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Zabaletako jaien zozketa

Zabaleta Auzolan elkarteak jaietan Goiegi jaietxean zozketatzen zuen 4 pertsonentzako afaria 7274 zenbakiari egokitu zaio. Zenbakia duen pertsonak auzoko elkarte kideekin harremanetan jarzea besterik ez du, txartelean kontakturako telefono zenbakia jartzen du. Honetaz gain Azpeitiko kilometroaren alde egindako zozketan Iñaki Zendoia, Rosik eskuratu du saski eder bat. 2011ko jaiak behin amaituta, Zabaleta Auzolan elkarteak eskerrak eman nahi dizkiete auzoko jaietan parte hartu eta lagundu duten guztiei (borondatez lan eginez, diruz, antolatzen...).

Sorgin dantzako entseguak

San Pedro egunean Oriako Sorgin Dantzan atera nahi dutenek bihartik aurrera, entseguak dituzte, Landaberri BHIko patioan astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita. Era berean, gogorarazten da, haurren zortzikotean joan

nahi duten urteetan 1997, 1998 eta 1999. jaiotako gaztetxoek kultur etxeko Gazte informazioan izena eman behar dutela.

Maria Auxiliadora elkartearen txangoa

Maria Auxiliadora elkarteak txango bat antolatu du ekainaren 19rako, igandea, Santanderrera joateko. Interesaturik daudenak, izena emateko edo informazioa jasotzeko deitu dezatela honeko telefonoetara: 943 360042 eta 943 363675.

Arcachonera joateko 3. Autobusa

Kuadrillategi eta Gazte klube ko gaztetxoek irteera egingo dute ekainaren 19an Arcachonen dagoen uretako parkera eta izena eman duten haur kopurua ikusirik, Ttakun Kultur Elkarteak beste autobus bat, hirugarrena, jartzea erabaki du.

Erreserban zeuden gazteek haien lekua ziurtatzeko Tta-

kunera hurbildu behar dute eta 30 euroak ordaindu, baita oraindik izena eman ez dutenek ere, hirugarren autobus horretako lekuak bete arte dute aukera.

Udako txoko eta kanpaldietako gurasoekin bilerak

Udako txoko eta kanpaldietarako gutxi geratzen da gaur, Manuel Lekuona kultur etxean eskimenduzko programazioaren txokoetako programazioaren guraso bilerak egingo dira.

LH3-LH6 mailako gazte-txoeren bilerak ekainaren 10ean izango da arratsaldeko 17:45ean, euskaraz eta 19:00etan, erdaraz. Abuztuko txokoetako programazioaren berri ematea ere ekainaren 10ean izango da arratsaldeko 19:30ean.

Bestalde kanpaldietako bilerak honako hauek dira: Askizura doazen haurren gurasoak ekainaren 10ean arratsaldeko 17:00etan; Mendigorriara doazenenak ere

ekainaren 10ean dute bilera, baina arratsaldeko 18:15ean eta KTGko gaztetxoena ekainaren 17an arratsaldeko 18:00etan izango da.

San Joan gaueko Soka-Dantza prestatzeko entsaioak

Erketz Dantza Taldeak antolatuta, ekainaren 16an arratsaldeko 19:00etan Zumaburuko eskolako gimnasioan, San Joan gaueko Soka-Dantza prestatzeko entsaioak egingo dira.

Entsaioen iraupena ordu-betekoa izango da, beraz 19:00etatik 20:00etara izango dira. Animatu zaitzete partehartzera!

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Zigor Iriondo txapelketatik kanpo gelditu da baina ez du umorerik galdu. Saio eta saio artean elkarte batean bazkaldu dute. Bertsolariek seinaka kantatu dute eta erloju bana jaso. Irudian Ane Labaka eta Asier Azpiroz.

Bertso-Eskolako sei kide bigarren fasera

■ Urte hasieratik egindako ahaleginak bere fruitua eman du ■ Iriondo geratu da sailkapenaren ateetan, jada Gipuzkoako txapelketatik kanpo. ■ G puntuak atsedean hartuko du irailera arte

Karlos Aizpurua eta Andoni Egañarekin bertsogintzan trebatzeko ikastaroa egin zuten Ttakun Bertso Eskolako zazpi bertsolarietatik sei izango dira irailetik aurrera Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren fasean. Gpuntua izena hartu duen txapelketa honen lehen fasea larunbatean amaitu zen eta herriko bertsolarien artean Zigor Iriondo izan da kanpoan geratu den bakarra. Unai Gaztelumendi, Beñat Iguaran, Asier Azpiroz, Ane Labaka eta Andoni Otamendik gainditu dute lehen fasea eta Unai Muñoa sailkatua zen duela lau urte finalerdietara iritsi zelako. Irailaren 17an hasiko diren final zortzirenetan lehiatuko dira Lasarte-Oriako bertso eskolan ari diren sei bertsolari hauek.

JON ALTUNA

Lasarte-Oriako bertso eskolako ordezkariak lan bikaina egin dute G-puntua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen fasean eta parte hartzen duten zazpi bertsolarietatik sei pasa dira final zortzirenetara. Zigor Iriondo izan da kale egin duen bakarra, eta sailkapenetik 20 puntura gelditu da, muga 579 puntutan egon da eta 559 eskuratu ditu lasarteoriatarak.

Urte hasieratik Lasarte-Oriako bertso eskolako ordezkariak buru belarri aritu dira Gpuntua prestatzen.

Alde batetik, Gipuzkoako txapelketan parte hartu duten herriko bertsolariei zuzendutako ikastaro berezia jaso zuten Karlos Aizpurua eta

Andoni Egañarekin eta beste-tik beste bertso eskola batzuetako kideen aurka neurtu dituzte indarrak hileroko maiatzera bitartean. Argi eta garbi ikusi da orain bertsolariek egindako ahaleginak espero ziren ondorioak izan dituela eta emaitza oso ona lortu dute txapelketako lehen fasean.

Txapelketa luzea

Orain irailera arte atsedean hartuko dute baina bertso udazken luzea izango dute bertsolari eta bertsozaleek. Irailak 17-urriak 9 artean jokatu dira zazpi final laurdenak, (lehen fasean sailkatu diren 32 bertsolari eta aurreko urtean finalaurrekoan izateagatik sailkatuta ziren beste hamar bertsolari, tartean Unai Muñoa dago hor); urriak 22-



Iguaran eta Muñoa bazkaltzen besteak beste Idiakez komunikazio arduradunarekin.

azaroak 6 artean jokatu dira final laurdenak (azken sei finalistak hor hasiko dute txapelketa); azaroak 20-abenduak 4 artean finalaurrekoak eta abenduaren 18an jokatu da Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala Donostia-ko Ilunbe zezen plazan.

Pozik dira Lasarte-Oriako bertsolariak Gipuzkoako Txapelketa ondo hasi dutelako. Aurreko larunbatean Urretxu-Zumarragan egin ziren bi saioekin amaitu da lehen fasea. 20 saio jokatu dira denera maiatzaren 8an hasi

eta ekainaren 5a bitarte, 10 herritan bi saio egun eta toki bakoitzeko bata goizez eta beste arratsaldez.

Giro ona izan da saioetan: eguerdian bertsozale eta bertsolariei elkarrekin bazkaltzeko aukera eman zaie eta "giro ederra" gailendu da toki guztietan. Horixe nabarmendu dute antolatzaileek, lehen fase honek "aho zapore gozoz" utzi dituela, alegia, jende asko, batzaz beste ehun lagun, batu direlako kanporaketara, egun osoan bertsozale, antolatzaile eta parte-hartzaileen artean

giro ederra egon delako eta bertsolariek oro har maila ona eman dutelako.

Gazteak indartsu

Lehen aldiz txapelketan parte hartu duten gazte asko izan dira eta maila bikaina eman dute. Horren adibide dira, Lasarte-Oriako bertso eskolan ari diren Unai Gaztelumendi, Beñat Iguaran, Asier Azpiroz eta Ane Labaka.

Puntuei dagokionez erraz egin dute aurrera, batek edo bestek estualdiren bat pasa badu ere. Unai Gaztelumendi Añorgakoa oso ondo aritu da bi saioetan, eta bederatzigarren puntuaketarik altuena eskuratu du, 611,5 sailkapenaren gorenean izan den Agin Rezola Astigarragakoaren 656, baino 44,5 gutxiago. Amasako Beñat Iguaran, lehenengo 15en barruan sartu da, 603,5 punturekin eta beste biek, Zubietako Asier Azpiroz eta Ane Labakak berdinduta amaitu dute 20. tokian 598,5 punturekin. Hain juxtu elkarrekin abestu zuten biek Urretxu-Zumarragan egin zen azken kanporaketako goizeko saioan.

Sailkatzeko juxtu xamar ibili da Andoni Otamendi, baina txapelketa honetarako jarrita zuen helburua lortu du eta irailetik aurrera jokatu den bigarren fasean gehiago gozatuko duela espero du. 580 puntu eskuratu ditu Andoni Otamendik. •

Lehen aldiz Gipuzkoako txapelketan parte hartu duten gazte asko izan dira eta maila bikaina eman dute